

 kintoa
ALL MOUNTAIN RACE



KINTOA ALL MOUNTAIN RACE

ARAUDIA

1. IZEN EMATEAK

Ekitaldian parte hartu nahi dutenek www.kintoamountains.com web-orriko estekaren bidez eman beharko dute izena.

- 150 parte-hartzailek eman ahal izango dute izena gehienez. Irailaren 5eko 23:59ra arte eman ahal izango da izena, edo, bestela, parte-hartzaileen kopurua web orrian osatu arte. Egun horretatik aurrera ez da inskripziorik onartuko.
- Izen-emate guztiak betez gero, itzarote-zerrenda bat zabalduko da, parte-hartzailearen batek baja emanez gero, interesa duen beste pertsona bati aukera eman ahal izateko.
- Izen-emateen prezioa hau izango da:
 - 1. TARTEA (martxoaren 25etik maiatzaren 31ra)
 - Banakako prezioa: 120€
 - Bikoteen prezioa: 220€
 - 2. TARTEA (ekainaren 1etik abuztuaren 15era)
 - Banakako prezioa: 150€
 - Bikoteen prezioa: 280€
 - 3. TARTEA (abuztuaren 16tik irailaren 5era)
 - Banakako prezioa: 180€
 - Bikoteen prezioa: 340€

- FAMILIARRA/LAGUNTZAILEA pasea. Parte-hartzaileei proban laguntzeko izen-ematea eskaintzen da. izango da prezioa:
 - LAGUNTZAILEA: 40€. Hauek barne:
 - Gosari goiztiarra larunbat eta igandean.
 - Herri bazkari larunbat eta igandean.
 - Aisialdi gunerako sarbidea eta igandeko azken festa.
 - 12 URTETIK BEHERAKO SENIDEAK, DOAN

Zer sartzen da lasterketan izena ematean?

- Lasterketako 2 etapetan parte hartzea.
- Sportident kronometraje-sistema, dortsalarekin eta txiparekin.
- Erantzukizun zibileko eta istripuetako aseguruua.
- Korrikalariaren poltsa: kamiseta, galtzerdiak eta babesleen opariak..
- Gosari goiztiarra kafea eta pastekin larunbateko eta igandeko irteera baino lehen.
- Hornidura lasterketan, bai larunbatean eta bai igandean.
- Bazkari herrikoia bi etapak amaitzean antolakuntzaren paddock-ean.
- Larunbateko eta igandeko aisialdi gune, parte-hartzaileentzako barra librearekin. Edaria eta mokadua egongo dira.
- Igandeko azken festarako sarrera, kontzertuarekin, sari-banaketarekin eta zozketan babesleek emandako opariekin.
- Zerbitzu mekanikoa etapa bakoitzaren amaieran. Parte-hartzaileek zuzenean ordaindu beharko dituzte osagaiak konpontzeko eta ordezteko kostuak zerbitzu hori ematen duen enpresarekin.
- Bizikletak garbitzeko gunea, 2 etapak amaitzean.
- Duten zerbitzua 2 etapak bukatzean.
- Anbulantzia eta mediku zerbitzua probak irauten duen bitartean.
- Maletak Esteribarretik Espinalera garraiatzea hilaren 1ean, larunbatean, eta maletak itzultzea hilaren 2an, igandean, Espinaletik Esteribarrera. KONTSIGNA bat jarriko da antolakuntzaren paddock-ean maletak utzi eta jasotzeko.

- Doako aparkalekua ostiral, larunbat eta igandeetan. Zubirin eta Aurizberrin.
- Ibilbidean zehar, esteka bat jarriko da doan deskargatzeko.

Zer ez da sartzen lasterketan izena ematean?

- “Izen-emateak barne hartzen du” atalean agertzen ez den guztia
- Ostatua ostiral edo larunbatean.
- Etapa bakoitzaren amaieran erabilgarri dagoen zerbitzu mekanikoaren ondoriozko kostuak.

2. DATAK ETA EGITARAUA

Proba Esteribar eta Erroibar bailaretan egingo da, irailaren 11n, 12an eta 13an.

- **Irailak 11, ostirala**
 - Dorsalak jasotzea 16:30h-20:30h, Esteribarko kiroldegian (Zubiri).
 - 19:00h-20:00h: lasterketaren aurkezpena eta argibide bilera Esteribarko kiroldegian (Zubiri). Bertaratzea gomendatzen da, ekitaldiari buruzko informazio eguneratua jaso ahal izateko.
- **Irailak 12, larunbata**
 - 07:00h-08:30h dorsalak jasotzea Esteribarko kiroldegian (Zubiri).
 - 07:00h-08:30h, KONTSIGNA eta maletak jasotzea Esteribarko kiroldegian Aurizberrira eramateko (Zubiri).
 - 8:00h Ibilbidearen hasiera. Korrikalariak Elosetako aparkalekuan dagoen IRTEERAN egon beharko dute (Eugi). Antolatzaileek aparkaleku bat prestatuko dute ibilgailuak aparkatzeko.
 - 13:30h, lehen korrikalariak iristeko aurreikusitako ordutegia.
 - 14:00h, Parte-hartzaile eta laguntzaileentzako herri-bazkaria Aurizberrin.
 - 15:00-20:00h, Aisialdi gunea eta eremu itxiaren irekiera parte-hartzaileentzat eta gainerako publiko orokorrarentzat. Bertako produktuen eta musikaren azoka paddock eremuan. Lasterketako bidezidorrak mantentzeko dirua biltzeko balio izango duten prezio herrikoiak.

- **Irailak 13, igandea**

- 07:00h-08:30h, KONTSIGNA eta maletak bilketa Aurizberrin prestatutako gunean Zubirira eramateko,.
- 8:30h, Ibilbidearen hasiera. Korrikalariek Aurizberriko IRTEERAN egon beharko dute. Antolatzaileek aparkaleku bat prestatuko dute ibilgailuak aparkatzeko.
- 14:00h, Parte-hartzaile eta laguntzaileentzako herri-bazkaria Zubirin.
- 15:00-19:00h, Aisialdi gunea eta eremu itxiaren irekiera parte-hartzaileentzat eta gainerako publiko orokorrarentzat. Bertako produktuen eta musikaren azoka paddock eremuan. Lasterketako bidezidorrak mantentzeko dirua biltzeko balio izango duten prezio herrikoiak.

Antolatzaileek eskubidea dute irteera-ordutegiak aldatzeko, izena emandako pertsona-kopuruaren edo beste edozein egoeraren arabera.

3. PROBAREN DESKRIBAPENA

Kintoa All-Mountain Race Europako pagadi ikusgarrienetako batean ematen den mountain bike esperientzia murgiltzailea da. Kintoko Basoa, natura, historia eta kultura elkartzen diren mugako lurraldea da.

Bi egunez, All-Mountain estiloko etapakako lasterketa Eugi, Zubiri eta Aurizberri lotuko ditu bidezidor naturalen bidez, igoera gogorrak, flowarekin egindako jaitsierak eta rider bakoitzaren errendimendu globala proban jartzen duten tarte teknikoak konbinatuz.

Ez da lehiaketa hutsa: Nafarroako Pirinioak barrutik bizitzea da, bertako jendearekin harana partekatzea eta jasangarritasunaren, tokiko garapenaren eta benetakotasunaren alde egiten duen ekitaldi baten parte izatea.

KINTOA ALL MOUNTAIN RACE “All-Mountain” estiloko lasterketa bat da, bidezidor eta bideetatik egiten dena. Parte-hartzaile bakoitzak bakarka edo binaka borrokatzen du kronometroaren aurka. Probak kronometratutako zenbait zati ditu (PK), denbora itxiko lotura-tarteen bidez lotuak (LT).

Lotura-tarteak errepideak eta/edo pista asfaltatuak eta bidezidorrak izan ditzakete. Parte-hartzaileek bide-segurtasuneko arauak bete behar dituzte, eta lehiaketatik kanpo gera daitezke agintari eskudunek salatzen badituzte. Hala ere, antolatzaileek arriskutsuak izan daitezkeen zatiak seinaleztatuko dituzte, parte-hartzailearen segurtasuna bermatzeko. Lotura-tarte horiek EZ dira lehiakorrak, eta ez dira lasterketa-denboran kontutan hartzen.

Tarte kronometratuak (TK) bidezidorretatik egingo dira nagusiki, eta pedalkada lauak eta igoerak izango dituzte. Beste kasu batzuetan, jaisteko tarteak izango dira, eta baliteke haietan gaitasun fisiko eta tekniko onak behar izatea.

ALL MOUNTAIN RACE KINTOAK bost tarte kronometratuta izango ditu, eta tarte horietako bat, gutxienez, laua edo igoera txikia izango da. Formatu hori lasterketako bi egunetarako izango da.

Hauek dira lasterketaren datuak:

- -IRAILAK 12, LARUNBATA: EUGI AURIZBERRI.
 - Distantzia: 45,6 km
 - Desnibel positiboa: 2.100m
 - Desnibel negatiboa: 1.900m
- -IRAILAK 13, IGANDEA: AURIZBERRI / ZUBIRI.
 - Distantzia: 51,6km
 - Desnibel positiboa: 2.050m
 - Desnibel negatiboa: 2.350m

Parte hartzaile guztiei 2 etapen ibilbideak abuztuaren 25ean bildaki zaizkie. Ibilbidea publiko egingo da, kronometratutako zatiren bat izan ezik, hori sekretua mantenduko baita probaren egun berera arte. Zati hau edo zatiak ezagutu gabe egingo dira. Argibide bileran lasterketaren ibilbidearen berri emango da, baina ez da “ageriko” Kronometratu Tarteari buruzko informaziorik emango. Lasterketan zehar, antolakuntzako langileak egongo dira lasterketaren hasieran, kronometratutako tarte hori noiz hasten den jakinarazteko.

Ingurumen-arrazoiengatik, baso-jarduketengatik edo ingurune naturalean egin beharreko beste jarduketengatik, antolakuntzak ibilbidea eta tarte kronometratuak ALDATZEKO eskubidea du. Kasu honetan, distantzia eta desnibelak askotarikoak ikusi ahal izango dira. Izena eman duten parte-hartzaileei aldaketa horien berri emango zaie posta elektronikoz.

Lasterketako zenbait puntutan etete-denborak ezarriko dira. Kasu horietarako, antolatzaileek ibilgailuetan mobilizatuko dituzte lasterkariak eta haien bizikletak, lasterketaren irteeran, lasterketako bulegoan beren dortsala jaso eta erretiratu direla jakinaraz dezaten. Mozketa-denborak ibilbidearekin batera argitaratuko dira.

PROBAREN ANTOLAMENDUA

Irteera-kontrol bat ezarriko da (0. puntua), non komisarioek babesak, janzkera eta bizikleta egiaztatuko dituzten. Kontrol horretatik pasatzen ez den txirrindularia probatik kanporatua izango da.

Dorsal, txip edo bizikleta-plaka galtzeak txirrindularia ez sailkatzea ekar dezake.

Ibilbidean zehar, bai lotura-tarteetan bai tarte kronometratuetan, antolakuntzako langileak eta “bike patrol”-ak egongo dira, probaren arauak betetzen direla bermatzeko eta parte-hartzaileen segurtasuna zaintzeko. Parte-hartzaileek langileen eta bike patrol-en jarraibideak bete eta jarraitzeko BETEBEHARRA izango dute.

Tarte kronometratu baten amaierara tarte horretako irteera-kontroltik pasa gabe iristen

diren txirrindulariak probatik kanporatuak izango dira. Ezarritako lotura-denborak ibilbidearekin eta haren ezaugarriekin batera argitaratuko dira. Sailkapen bat lortu ahal izateko, txirrindulariak probaren ibilbide osoa egin beharko du, antolakuntzak diseinatutako trazatuari jarraituz..

Guztiz debekatuta dago tarte kronometratu baten barruan matxuraren bat dela eta kanpoko laguntza jasotzea; txirrindulariak bere kabuz konpondu beharko du arazoa, edota tartearen amaierara iritsi behar du beharrezko asistentzia mekanikoa jasotzeko.

Behin tarte kronometratuaren barruan, aurrean doan txirrindulariarekiko gutxienez 10 metroko segurtasun-tartea mantendu beharko da. Parte-hartzaile batek beste bat harrapatzen badu tarte kronometratu batean, oinarrizko segurtasun-arauak errespetatu beharko dira eta, ahal den neurrian, bi txirrindulariek aurreratze zuzena erraztu beharko dute, bietako bat bera ere arriskuan jarri gabe. Tarte horietan aurreratzeak baimenduta daude, baldin eta atzean doan txirrindulariak aurrekoari "paso" hitza esanez abisatzen badio. Aurreratzea soilik aurreko txirrindulariak bere bizikleta eremu seguru batean gelditzen duenean egin ahal izango da, atzekoari pasatzen utziz, hark segurtasunez aurrera egin dezan. Parte-hartzaile batek antolakuntzari tarte kronometratuan erorketa eragin dion aurreratze arriskutsu bat pairatu duela jakinarazten badio, antolakuntzak aurreratzea egin duen txirrindularia aurkitutu ahal izango du, lasterketan gelditu eta probatik erretiratzera behartu.

Parte-hartzaile ororen betebeharra da istripu larriren bat izan duen beste txirrindulari bati laguntzea, eta lehenengo kontrolari jakinarazte a, asistentzia medikoek artatu ahal izan dezaten. Parte-hartzaile bakoitza izango da proban parte hartzearen erantzukizuna. Beraiek erabakiko dute lasterketan jarraitu behar edo ahal duten, salbu eta Osasun Zerbitzuetako langileek edo lasterketa-zuzendariak probatik kanporatzea erabakitzen badute, osasunarekin lotutako segurtasun-arrazoiengatik.

4. PARTE HARTZAILEAK

Gehieneko parte-hartzaile kopurua 150 plazatan ezarri da, antolakuntzak babesleen artean banatzeko dituen hainbat dortsalez gain. Proba honetan parte hartzeko ez da beharrezkoa federatua egotea. Txirrindulari guztiek aseguruia izango dute lasterketarako.

Proban parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da dagokion izen-ematea egitea horretarako gaitutako loturan.

5. KATEGORIAK

Kintoa All Mountain Racen parte hartzeko, 18 urte beteta izan beharko dira lasterketa hasi aurreko egunean. Ezarritako kategoriak honako hauek dira:

- BIKE KATEGORIA:
 - Gizonezkoen Nagusia, 18 eta 39 urte bitartekoak
 - Gizonezkoen Masterra, 40 urtetik aurrerakoak
 - Emakumezkoen Nagusia, 18 eta 39 urte bitartekoak
 - Emakumezkoen Masterra, 40 urtetik aurrerakoak
- E-BIKE KATEGORIA
 - Gizonezkoen Nagusia, 18 eta 39 urte bitartekoak
 - Gizonezkoen Masterra, 40 urtetik aurrerakoak
 - Emakumezkoen Nagusia, 18 eta 39 urte bitartekoak
 - Emakumezkoen Masterra, 40 urtetik aurrerakoak
- BIKOTEEN KATEGORIA
 - Gizonezkoen bikoteak, 18 urtetik aurrerakoak.
 - Emakumezkoen bikoteak, 18 urtetik aurrerakoak.
 - Bikote mistoak, 18 urtetik aurrerakoak.
- E-BIKE BIKOTEEN KATEGORIA
 - Gizonezkoen bikoteak, 18 urtetik aurrerakoak.
 - Emakumezkoen bikoteak, 18 urtetik aurrerakoak.
 - Bikote mistoak, 18 urtetik aurrerakoak.

6. BIZIKLETAK

Parte-hartzaile bakoitzeko MTB bizikleta bakarra erabiltzea baimenduko da, eta tarte bakoitza hasi eta amaitzeko erabili beharreko bera izango da. Antolakuntzak bizikletak eta gurpilak markatu ahal izango ditu.

Antolakuntzak eta komisarioek Araudia edota segurtasuneko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituen edozein bizikleta kanporatzeko eskubidea gordetzen dute.

7. E-BIKE

E-bike kategoriako parte-hartzaileek honako parte-hartze arau hauek bete beharko dituzte, FCCren BTT enduroko araudian eta pedalei eragiteko laguntza homologatua duten bizikleta elektrikoen araudian oinarrituta:

Lagundutako gehieneko abiadura

Gehieneko abiadura 25 km/h-koa izango da. Ez dago baimenduta txirrindulariak pedalierri eragin gabe motorra martxan jartzen duen mekanismorik instalatzea. Oinez laguntzeko botoia baimenduta dago, motorra gehieneko 6 km/h-ko abiaduran aktibatzen duena. Horrek ibilbidea bizikletaren beraren laguntza mekanikoarekin egitea ahalbidetuko dio, e-bike kategoria honetan baimenduta baitago.

Baterien erabilera

Bateria bakar baten eta EXTENDER-aren (baldin badu) erabilera soilik dago baimenduta. Baimenduta dago bateria etapa batetik bestera kargatzea larunbat arratsaldean edo gauean.

Egiaztapen teknikoak eta kontrolak

Bizikletek egiaztapen teknikoak igaro beharko dituzte irteera baino lehen, baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko. Ustekabeko kontrolak egingo dira ibilbidean zehar; araudi hau ez betetzeak probatik kanporatzea (deskalifikatzea) ekarriko du.

8. BABESAK ETA SEGURTASUN-NEURRIAK

Honako material hau erabili beharko da derrigorrez:

- Bizikleta-kasko homologatua
- Haize-babeseko jaka
- Ur-bidoia (gutxienez 0.35 l) eta bidoi-euskarria bizikletan
- Telefono mugikorra
- Eskularruak
- Eguzkitako betaurrekoak
- 2 barrita eta gel energetiko 1
- Tresnak eta bizikleta-ordezko piezak: (Gutxienez multitresna bat, gurpilaren neurriko 2 ganbera, hauspoa eta bizikleta-modeloko aldagailu-patilla)
- Kronometraje-materiala (antolakuntzak emana)
- Dortsala (antolakuntzak emana)
- GPSa edo gailu mugikorra (telefonoa) probaren track-arekin
- Meteorologia txarra bada, nahitaezko gutxieneko materiala handitu ahal izango da.

9. IZEN-EMATEAK EZEZTATZEKO POLITIKA

Ezerezteko edozein eskaera posta elektronikoz egin behar da, helbide honetara idatzita:

kintoamountains@gmail.com

Kasu hauetan bakarrik izango da posible:

- Istripua
- Gaixotasuna
- Lesioa

Mediku-egiaztagiri bat bidaliko da posta elektronikoz helbide honetara bertara

Izen-ematearen diru-itzulketaren baldintza hauetan egingo da:

- % 100, 2026ko martxoaren 25etik ekainaren 1era arte
- % 75, 2026ko ekainaren 2tik uztailaren 1era arte
- % 50, 2026ko uztailaren 2tik abuztuaren 30era arte
- Irailaren 1etik aurrera ez da itzulketarik egingo.

Arrisku meteorologikoengatik edo antolakuntzaz kanpoko beste segurtasun-arrazoi batzuek ekitaldia bertan behera uzten bada, antolakuntzak txirrindularien edo langileen (staff) segurtasuna arriskuan dagoela ulertzen badu, antolakuntzak proba bertan behera utzi ahal izango du. Kasu horretan, izena eman duten parte-hartzaileei izen-ematearen zenbateko osoa itzuliko zaie. Soilik online plataformako izen-emate gastuak izango dira parte-hartzaileen kontura.

10. SAILKAPENAK

Biker bakoitzaren karrera-sailkapena kronometratutako tartetean egindako denbora guztiak gehi balizko penalizazioen batura da.

11. SARIAK ETA ZOZKETAK

Ezarritako kategorian bakoitzeko lehen hiru sailkatuek trofeo bat eta sari bat jasoko dute. Sarietaz gain, txirrindulari bakoitzak, dortsalarekin batera, probako babesleen eta antolakuntzaren oparitxo bat dakarren poltsa bat jasoko du.

12. ERREKLAMAZIOAK

Lasterketaren garapenari edo lasterkarien portaerari buruzko erreklamazioak lasterketako zuzendaritzan aurkeztu beharko dira, azken lasterkaria iritsi eta 15 minutura gehienez.

Sailkapenei buruzko erreklamazioak, gehienez ere, informazio-paneletan jarri eta 30 minutura aurkeztu beharko dira. Erreklamazio horiek komisarioek eta batzorde antolatzaileko lehendakariak aztertuko dituzte, ebatz ditzaten.

13. ZEHAPENAK

- Kanpoko laguntza gaitutako eremuetatik kanpo – Lasterketatik kanporatzea.
- Markatutako ibilbidea ez errespetatzea, ateak saltatzea, etab. – 30 segundoko penalizaziotik lasterketatik kanporatzera arte, arau-haustearen arabera.
- Ibilbidearen trazatua ez errespetatzea edo bidezidorrak egitea – Probatik kanporatzea (deskalifikatzea).
- Remonteak edo kanpoko laguntza erabiltzea lasterketan zehar – Probatik kanporatzea (deskalifikatzea).
- Irteerara derrigorrezko materialik gabe aurkeztea – Irteera hartzeko debekua.
- Martxan zehar kaskoa jantzita ez eramatea – Lasterketatik kanporatzea.
- Zaborra lurrera botatzea – Lasterketatik kanporatzea.

14. BESTE GOGOETA BATZUK

Proban parte hartzeak berekin dakar:

- Araudia oso-osorik onartzea.
- Irudi-eskubideak baimentzea, antolakuntzak argazkiak edo bideoak argitaratu edo hirugarrenei lagatzeko baimena emanaz, denbora- edo toki-mugarik gabe, ekitaldia sustatzeko edo zabaltzeko helburuarekin.
- Gainerako parte-hartzaileekiko errespetua eta elkartasuna erakustea, laguntza eman dakioken arazo larri baten aurrean edozeinen ongizatea lehenetsiz. Era berean, lehiaketa osoan zehar "joko garbia" sustatzea.

15. INGURUMEN-NEURRIAK

KINTOA ALL MOUNTAIN RACE balio ekologiko handiko ingurune natural batetik igarotzen da, eta, tarte batzuetan, babestuta dago. Zehazki, lasterketa “ALDUIDE MENDIA” Kontserbazio Bereziko Eremutik (KBE) igaroko da.

Hori dela eta, antolakuntzak Ingurumen Plan Integral bat prestatu du, ekitaldiak ingurunean izan dezakeen inpaktua gutxitzeko eta babesa bermatzeko neurri ugariarekin.

Parte-hartzaileek jarraibide hauek bete beharko dituzte:

- Zaborrik ez sortzea, eta, sortuz gero, horretarako prestatutako lekuetan uztea.
- Basafauna eta basafloa errespetatzea: oihu ez egitea, lorerik ez harrotzea.
- Mendiko eremuetan azienda errespetatzea eta bidea hartuz gero pasatzen uztea.
- Berez mugatuta dagoen ibilbidetik ez irtetea eta pistatik kanpo ez egitea tarterik.
- Jabetza pribatuetan ez sartzea.
- Oliorik ez botatzea edo bizikleta-osagaiak aldatzeko piezak uztea.

Argibide hauetako edozein ez betetzeak probatik kanporatzea (deskalifikatzea) ekarriko du.